

LANGILE
ERAILDU BATI,
EDO BIRI

ERANDIO 1969

Jaioberritan
Caminito de Erandio
kantatzen nizun gauero

kanta tristea zelako ustean
ama ernegatzen zitzaidan:
Ez abestu horrelakorik umetxoari!

sehaska-kanta hutsa zen
ordea, niretzat,
eta zuri ez ezik
nire buruari ere
kantatu egiten nion

Umea nintzela
gertatu baitziren
gertatu ez beharrekoak
herrian

Josu Murueta eta
Antton Fernandezekin batera
denok hil ginen
amiñi bat orduan

Isiltasun betekoak
gogoratzen ditut
udagoieneko egun ilun haiek:
solemnitate mingarrikoak

handik urte batzuetara
Imanolek kantatu zion
gure zurtzari...

Caminito de Erandio
rema que rema...

estropuen orroak
eztarrarian lanbro

ODOLUSKETA

Kanpai-hotsek
ibarra bildu zuten

gorpuen ondoan
masailezurak, ukabilak
harrizkoak

inork ez zekien
mina nola gorde

inork ez zekien
amorrua nola askatu

odola ematea
askabidea suertatu zen

balaz eroriek
galdutako odola
halako ehun
eman zuten auzoek

urak handi ibaian
gabarra beltzak
ateko bandan
inongo itsasorantz

IZAREN NEGARRA

Xingola beltza
trapu zurietan

trapu beltza
izara zurietan

izarak zintzilik leihoetan
xingola beltza josita dutela

beldurra duintzen duten izarak
dolua haragitzeaz bat
hastio bil dezaketenak

batasun kromatiko
leiho hitsetan

izara zuriak
iraultzaren haziak

GRISEN PALETA

Inoiz ez ziren zuriak izan
izarak

xaboi aparretan orduak egonagatik ere
gristasuna zeukaten itsatsita

ez zegoen lixibarik
lehengora ekar zitzakeenik;
kuxidadeagatik bazen ere
saiatu beharra zegoen, ordea

amak, arrebek, amonek
eskuak odoltzeraino ekiten zioten

Txinbo xaboiaren usainak
une batez estali egiten zuen
kutsadura hilgarriaren hatsa

unea motza zen, motzegia,
eta izaren zuritasuna
alferriko lana

lehortu orduko
grisa gailentzen zitzaien,
grisa baizen munduko kolorea,
kolore bakarra paleta hitsean

PUPUAN TRAPUA

Zuekin batera
denok hil ginen neurri batean,
gupidarik gabe etorri baizen heriotza,
eroria
gutako edonor
izan zitekeela

bizirik edo
jarraitzea egokitu zitzaigun

zin genizuen orduan
heriotzak
ez zirela ahanzturan zimelduko

zuen oroimena
ekintza zumeetan ehunduko zen,
lizar tentea apurka itotzen duen
huntzaren borroka isila nola

HILAK KULUNKA

Batzuetan ez dago jakiterik
hilekin zer egin,
ezta norenak diren ere

litekeena da mundu guztiak
jabetu nahi izatea,
areago kausa noble baten
martiriak direnean

eskutik eskura
ibiltzen dira maiz
txotxongilo jipoituak!

baina arraunkaden bizitasuna
apalduz doa,
eta hilak
haien bidea eginen dute
mareen konpasean

GRISEAN MORE

Matxinada hura ere
emakumeena zen

gizonak fabrikara joaten ziren
otzan eta errime

seme-alaben hauspoa
ezinean beti, itolarrian

gonapean gordetzen gintuzten
kutsadura hilgarritik

egun batean prakak janztea
erabaki zuten

ilea askaturik
prakak janztea

emakumeena zen
matxinada hura ere

AGINDUAK

Aste hartan fabrikan
gaueko txandan ari zen aita

agindu bakarra utzia zuen:
ilundu orduko
balkoiko iltzetik
libratu kaiola
eta sukaldera sartu
txoria

arrebak zeukan
mandatu txiki hori
betetzeko ardura

ahaztu baina
nonbait arrebari
eta goizaldean
etxera bueltan
balkoitik sartu zuen
txoria zerraldo
aitak

ez du neguak hil
ez izotzak
ez gauak
neuk hil dut
zioen penaz aitak
ordu txikietan
enegarrenez
isurketaren agindua jaso
eta zintzoki betez

amorruez amak
arrosarioa otoitzea
agintzen zigun

MAMUA

Badakit ez dagoela
baina pertsiana igotzerakoan
harekin topatzea espero dut
goizero

etengabeko isuriak
ziurtasuna ematen zidan:
ke zerrenda nora
halako eguna zekarren

etsaia izatetik
etxekoa izatera aldatu zen
tximinia tzar hura

gure denboraren gordailua zen
gure izatearen amandrea

bota zuten egunean
ez zen ospakizunik egon

arnastea
nostalgiaz betetako erreflexua da
biriken txistukadek
ziurtatzen didatenez

SENDABIDEAK

Arantzaz betea irudikatu genuen
otoitzaren bidea

umeak ginen,
labarretara joateko irrikak menderatzen gintuen

arriskua urre-urrean behar beti,
zer zenik ere ez genekielarik

indarrak urri, nekeak lodi,
azkar joan zaigu bizitza

zolak janda itzuli gara
sorlekura

biluzik, ortozik,
otoitzaren bideak irentsita

egur eroriak ibaiaren joanean
gure amen ildoari so

arantzaz betea irudikatu genuen otoitzaren bidea,
jakin gabe maite genituen haiek
hantxe genituela zain
ukendu epelaz oin erreak
sendatzeko pronto

Zuek hil zineten,
atomo,
huts,
hauts
bihurtu zineten

(Mikel Arregi)

EZ ADIORIK (Imanol Larzabal gogoan)

Kantatzen duzunean
bizirik zaude

kantatzen duzunean
bizirik nago.

kantatzen diezunean
bizirik daude